



**Ordiziako Udala**  
(Gipuzkoa)



2015SCON0002

### 0737. DEKRETUA

2015eko maiatzaren 25ean onartu zen lizitazio deialdia, lehiaketa bidez eta prozedura irekian, haur eta nerabe etorri berrien bertakotze programa esleitzeko.

Bi eskaintza jaso ziren: Urtxintxa aisialdiko eskolak eta Hitzaro euskara elkarteak eginikoak, alegia.

Hitzaro euskara elkartearena baliogabea zen, eskaintako prezioa lizitazioaren prezioa baino altuagoa baitzen.

Uztailaren 10ean Urtxintxa aisialdi eskolari jakinarazi zitzaion, hortaz, berea zela eskaintza onena eta, hamar laneguneko epean zenbait dokumentu aurkeztu behar zituela.

Uztailaren 13an, Urtxintxak jakinarazi digu bere eskaintza erretiratzen duela.

Beraz, eskaintza onargarririk ez dagoenez, 3/2011 Legegintzako Errege-Dekretuak, azaroaren 14koak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, bere 151.3 artikuluan xedatzen duena kontuan izanik, EBAZTEN DUT:

Haur eta nerabe etorri berrien bertakotze programa esleitzeko kontratazio prozedura esleitu gabe uztea eta artxibatzea.

\* Dekretu hau dagokienei jakinaraztea.

Jose Miguel Santamaria Ezeiza Alkateak agindu eta sinatu du, Ordizian, 2015eko uztailaren 28an, eta hori guztia, nik, Ordiziako Idazkariak, ziurtatu dut.

ALKATEAK

IDAZKARIAK